

Alaitz Aizpuru Joaristi

Hizkuntza giltza denean

Hizkuntza giltza denean, «ideien sistema guztia aldatzen da. Balioen sistema guztia» (Joxe Azurmendi, '56ko belaunaldiaren pentsamendua ulertzeko giltza: hizkuntza', in Miren Rubio, *Txillardegi. Batasunaren pentsalaria*, Jakin, EHU eta AEK, 2019, 5-38, 5. or.). Ulertzen ote dugu Azurmendik esana? Ulertzen ote dugu gure hizkuntzazko izatearen nolakotasuna eta zenbaterainokotasuna? Hizkuntzaren giltza sarrailan sartu eta irekitzen den eremua?

Orokorrean, hizkuntzaren ulerkera oso azalekoa dabilkigula esaten digute dakitenek. Kulturaren adiera meharrekin gabiltzala, hizkuntzaren ezaguera ezin iharragoekin.

Nola liteke, bizitza kulturalaren aurrebaldintza hizkuntza bada, eta gure bularralde gehien (harro)puzten diguna gure izate kulturala (deitu politikoa, nahi bada)?

Hizkuntzarena ezagutu eta garatu ahala, zabalduz eta sakonduz doan eremua da, bere erroak eta bere hegoak agertuz joan ahala, gero eta garrantzitsuago, gero eta aberatsago aurkezten dena. Azurmendik, horren jakitun, joritasunez landu zuen gaia gure ulerkera txiroa hain txiro ibil ez zedin.

Nola ulertu ideien eta balioen sistema guztia aldatzeaz esan nahi dena?

Hizkuntza giltza denean, hizkuntzaz dugun ikuspegia bezainbat munduaz eta gizakiaz duguna errotik aldatzea dagokigulako, beharbada? Galdera guztiak berriz luzatzea tokatzen zaigulako, alegia? Erantzun berriak derrigorrezkoak direlako, hala bada?

Izan ere, 'hizkuntza-bira' gertatzen denean, hizkuntzaren ulerkera mendebaldar hegemonikoaren ispilu sasi-neutroak krask egiten du. Kin-kilin-kalan, hamaika puskatan hausten da. Eta gu eta munduaren

artean olerkia, hots, hizkuntzak agertzen dira. Hizkuntzak diren olerkia, gu eta munduaren arteko ezinbesteko bitarteko. Kondizionamendua bai, baina baita askatasuna eta jolasa ere. Etenik gabeko dantzan, elkarrekin, bai mundua, bai gu, bai hizkuntza, sorkari bezain sortzaille. «Hizkuntzaren paradoxa hori da: erabili egiten dugula eta berak erabiltzen gaituela nolabait; guk egiten dugula bera eta berak egiten gaituela gu» (Joxe Azurmendi, *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, 2007, 321. or.).

Ispilua haustean, ispilu jokoak amaitzen dira. Ispiluko isla, baleko eredu bat eta bakarraren gezurra eta bortxa agerian geratzen da. Eredu linguistikoa, kultural, gizatiar bat eta bakarra? Are bizidunena? Ez berehala! Ez berriz!

Eta, hala, hizkuntza giltza denean, munduak bere aniztasuna berreskuratzen du. Ezberdinen arteko berdintasuna begi bistako egiten da, olerki desberdinen artean hierarkiarik ez da. Eta gizakiaren hizkuntzazkotasuna, banatzen gaituen muga baino, batzen gaituen itsaso eta elkarrenganako zubi bezala entenditzen da. «Hizkuntzaren etxean bizi garela, baina ez hizkuntzaren preso. Hizkuntza omen den mundu-ikuskerazabalik dago bai bere barruan eta bai kanpora» (*ibid.*: 308).

Harremanek hartzen dute plaza. Gure buruarekin, komunitatearekin, gertukoekin, urrutikoekin, naturarekin, beste bizidunekin, denbora-rekin, inguruarekin, etorriko direnekin eta joan zirenekin, ametsarekin eta oroimenarekin, pozarekin eta beldurrarekin ditugun harremanek. Hartu eta emanek jarraitutasun soka bat osatzen dute, osatzen dugu. Elkarreaginezko sare bat. Eta gizakioi dagokigun lekuaz, gure loturez eta gure askatasun aukereaz, gure txikitasunez eta gure handitasunez, garenaz eta ez garenaz hobeto konturatzen gara.

Hizkuntza giltza denean, hizkuntzak galdutako eremuak, funtzioak, galdutako barne eta kanpo orekak, galdutako begiruneak eta balioespenak berreskuratzen ditu. Mintzatzea zer den ulertzen hasten gara, eta hizkuntza hitzean ez dela agortzen berehala sumatzen eta sentitzen da. Hizkuntza giltza denean, «errealitatea den fikzioa» agerian geratzen da (Joxe Azurmendi, 'Hizkuntza, askatasunaren espazioa', in *Askoren artean: Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile*, EHU, 2007, 79-108, 90. or.).